

## **7. (1391-1400)**





## 7.1. 1391. URTEA

## 7.1.1. Orreaga, Zumaia, Deba eta Itziarrentzako epaia

1391-II-25ean, lehendik Orreagak Itziarko partean eta Zumaian zituen ondasunei buruzko epaia emateko izendatuta zeuden hiru arbitro edo epaileek, beren erabakia jakinarazi zuten Elorriagan. Gartzia Perez Ormaiztegikoa (Mutrikuko bikarioa), Joan Perez Ierategikoa donostiarra eta Otxoa Martinez Iribekoa azkoitiarra ziren lehendik epailetzat hautatuak. Hona hemen jakinarazi zutena:

- Auzia Mendaro eta Zestoako uren artekoa (Deba eta Urola ibaien artekoa) eta Iraurgiko mugarren eta Zumaiaiko uraren artekoa zen.

- Debako zenbait lekukok Iruñean zin eginda esan zutenez, Zumaiaiko San Pedro elizak lehenbizi Zabaliagako sarioa bereganatu zuen, gero Ardantzán baratze bat, Pikoten soro bat, Otabartzan beste bat eta Eneko Joan dagoen Iruren beste bat, Olano azpiko landa bat, Leizaolan mugarrituta egiten zen soro bat (soro ura beti entzun zuten zalantzazkoa zela), Urtaraingo beste soro bat eta Zumaiaitik gertu (Narruondotik Zumaiaiko bide zaharrean, bidearen eta uraren artean) zegoen ardi-txabola bat.

- Orreagako prioreak zioenez, Zumaiaik askoz ere lur, mendi, saroi eta eskubide gehiago bereganatu zituen, eta Zumaiaienak izan behar zuten Legazpi, Mendaro eta Zestoako uren (Urola eta Deba ibaien) artekoak.

- Epaileek, lekukoen testigantzak jaso eta aztertuta, orain arte aipatutako saroi, baratze, soro eta lurak Zumaiaiko eliza edo monasterioarenak (Orreagako priorearen izenean) zirela erabaki zuten. Hala ere leku haietako batzuk Zumaiaiko hiribilduak ezin zituen ustiatu eta aprobetxatu.

- Zumaiaiko lur eta jurisdikziokoak izango ziren, Deba eta Itziarko lurretatik aparte, itsasotik Sarrondoko errekaraino eta errekatik zuhaitzetako gurutzeen eta mugarren arabera Elorriagatik Zumaiarako bideraino, eta handik Oranzusta (oraingo Ollausta?) izeneko muinoraino, eta handik kordelean zuten itsasoraino. Barruti horretan egiten ziren hamarrenak eta kontratuak, etab. Zumaiaiko hiribilduaren jurisdikziokoak izango ziren, eta ez Debakoarenak.

- Zumaiaiko elizarenak izan ziren eta ondoren adieraziko zen barrutian zeuden mendi eta lurretan ganaduak bazkatzeko eta egurra eramateko (su-egurra, itasontziak, dolareak, upelak eta abar egiteko) eskubidea izango zuten Zumaiaiko hiribildukoek. Delako barrutia hauek mugatzen zuten: Yurriça-ko (Iñurritzako) errekek (Oraingo Errotaberriko erreka, gure ustez), Martin Soreasurren (Sorazu) etxeen artekoak, Sagarbidek, Ipin-tzak, Apaolaerrekek, Zumeltzuko (Zubeltzuko) burdinolak, puntu horretatik aurrera Usarroerrekae do ArroaerrekaN arruondoraino, S arrondoko errekaraino errepideak, zuhaitzetako gurutzeek eta mugarriek, Elorriagatik Zumaiaiko bideak, “Olançustak” (oraingo Ollaustak?) eta handik zuzenean itsasoraino zihoan lerroak. Zumaiaikoek herritik kanpora ezingo zituzten eraman handik ateratako zurak. Ikatzik ere ez zuten barruti horretan egingo.

- Epai haren bidez, halaber, Debako hiribildukoek eta Itziarko unibertsitatekoek zumaiairek bezalaxe gozatu ahal izango zituzten barrutiko lurak.

-Bi Udaletakoek txerri taldeak gizendu ahal izango zituzten barruti horretan.

- Otabartza mendia (gure ustez oraingo Otakor) Zumaiaiko eliza edo monasterioarena izango zen.



7.1. irudia. Itziar. Otabartza edo Utartza trenaren tunelaren gainean.

- Barrutian zeuden etxe eta burdinolek zeuzkaten eskubideak mantendu egingo zituzten.

- Barrutian etxeak, baserriak, sagastiak eta bestelako eraikinik egitea debekatu egiten zen. Debekurik ez zen egongo alderen batek sagastiak, zuhaitzak edo eraikinak ezartzen bazituen, bertako auzotarrak mantentzeko baziren.

- Legazpi (Urola) eta Mendaro (Deba) ibaien eta Iraurgi artean zeuden gainerako lurak Debako Kontzejuarenak eta Itziarko unibertsitatearenak izango ziren<sup>1</sup>.

Epai honetan itsasontziak egiteko zura aipatzen denez gero, Zumaian XIV. mendean ontziolak bazirela pentsatu izan da<sup>2</sup>.

### 7.1.2. Tolosako Batzarra

1391-I-24an Tolosako hiribilduak Zizurkilgo San Miliango kolazioko eta Alegiako hiribilduko biztanleak Tolosako auzotartzat onartzea erabaki zuen<sup>3</sup>.

Urte hartako abuztuaren 10ean, bestalde, Tolosako Andre Mariaren elizan bederatzi hiribildutako ordezkariak bildu ziren. Hona hemen hiribilduen zerrenda: Tolosa, Segura Arrasate, Mutriku, Getaria, Ordizia, Leintz, Zarautz eta Bergara. Gaztelako Joan I.a erregea hila zen, eta Gipuzkoako hiribilduetatik prokuradoreak joan ziren Enrike III.a *Gaixotia* erregearengana lehendik zeuzkaten foru eta pribilegioak berrets zitzan. Erregeak ez zituen, ordea, berresten, eta zerga-biltzaileek foru-zerga kobratu nahi zien. Hiribildu haiek protesta egin zuten; izan ere, Gipuzkoa hasiera-

hasieratik gizon kapareek populatu zuten, eta ez zegokien zergarik ordaintzea<sup>4</sup>. Erregeari eta haren Kontseilukoei eskabidea egin zieten arazoari zuzenbidezko irtenbidea eman ziezaioten, eta bitartean hiribilduen asmoa zergarik ez ordaintzea zela jakinarazi zieten<sup>5</sup>.

Tolosako bilera hartara, besteak beste, Donostiak eta Hondarribiak ez zituzten prokuradoreak bidali, baina Madrilen apirilean Enrike III.a erregearen gida-

ritzapean bildutako Gorteetara bidali zituzten. Pelegrin Gomez (edo Engomez) eta Joan Neilas ziren Donostiako ordezkariak, eta Esteban Aboat Hondarribikoa<sup>6</sup>.

Gaztelako Enrike III.a erregeak Madrilgo Gortetan egindako agirietan sinatzaile azaltzen dira Oñatiko Beltran III.a Belez Gebarakoa eta honen seme Pedro II.a Belez Gebarakoa nobleziako kide gisa<sup>7</sup>.



7.2. irudia. Tolosako udaletxe zaharra.

## 7.2. 1392. URTEA

### 7.2.1. Zestoako agiriak berretsita

Gaztelako Enrike III.a errege berriak Burgosko Gortetan hiribilduetako agiriak berretsi egin zituen. Horietako batzuk Zestoari zegozkion, eta horretarako 1392-II-22an sinatutako agiriaren berri ematen dugu “Agiritegia” izeneko atalean (ikus [XIV. m. 12] agiria).

Agirian dioenez, Gaztela, Leon eta abarretako Enrike III.a *Gaixotia* erregeak zestoarregandik [XIV. m. 6], [XIV. m. 10], [XIV. m. 7] eta [XIV. m. 9] agiriak jaso zituen, aita Joan I.a erregeak emandakoak. Zestoarrek agiri haiek berronets zitzala eskatu

zioten, bertan idatzirik zegoena bete zedin. Erregeak berrespena eman zuen, eta bere erreinuetako justizia-gizonei agiri horiek ziotena betearaz zezatela agindu zuen<sup>3</sup>.

Urte hartantxe Gaztelako eta Nafarroako erreinuen arteko muga zehaztu eta Gipuzkoak Nafarroarekin zuen Ermandadea indartu nahi izan zuten. Uztailaren 4an Nafarroako erregeak Lope Gartzia Arbizukoa eta haren notarioa bidali zituen Gipuzkoarekin eta Arabarekin zuten muga finkatzeko. Uztailaren 4an, irailean eta urrian ere ibili ziren Lorenzo Retakoa (Gorteko alkatea), Lope Gartzia Arbizukoa eta Beltran Loiolakoa mugak finkatzen<sup>6</sup>.

## 7.3. 1393. URTEA

### 7.3.1. Aizarnarrak eskumikaturik

“Agiritegia” izeneko atalean [XIV. m. 13] deitu dugun agiria, 1393-II-6koa, interesgarria da oso. Bertan agerienez, Iruñeko Martin Zalba apezpiku eta kardinalak zioenez aizarnarrak bekatuaren bidetik ibili zirelako behin eta berriz eskumikatu zituzten. Gero, ordea, damutu egin ziren, eta apezpikuak altxatu egin zizkien eskumikuak. Horrez gain Aizarnako elizarako erretorea aurkezteko eskubidea eman zien. Apezpikuak zioenez, batzuek elizak okupatu egiten zituzten, eta Iruñeko apezpikuaren mendetik kanpo gobernatzeari ekiten zioten. Horietako bat Iraetako San Joan Latrangoaren eliza zen, Aita Santuen aginduei aurka eginez zebilena.

Martin Zalbak aipatzen duen Iraetako eliza oraingo Santa Inesena izango da. Ereintxunen arabera ermita hori Diego Irrarragak 1620an eraiki zuen, eta hasieran San Joani eskainia zen<sup>8</sup>. Garbi dago, ordea, XIV. mendean Iraetan bazela San Joan Latrangoari eskainitako ermita. Hain zuzen patroï legoen eskuetatik atera eta zuzenean bere mende eduki nahi zuen Martin Zalbak.



7.3. irudia. Iraetako Santa Ines ermita.

Aizarnarrei debekatu egin zien erretorea aurkezteko eskubidea beste inoren esku uztea. Horrelakorik gertatuko balitz, berehala pasatuko litzateke eskubidea zuzenean Iruñeko apezpikuarengana.

Otsailean aizarnarrentzat agiria sinatu eta maiatzean Martin Zalba kardinala Avignon aldera abiatua zen, Aita Santuarekin elkarrizketatu asmoz. Ekainaren 3an iritsi zen<sup>9</sup>.

Ez da erraza aizarnarrak zergatik eskumikatu zituzten jakitea, baina pentsa liteke, Azpeitian bezala, elizaren patronatua (hamarrenak, opalkuntzak eta apaizak aurkezteko eskubidea) izango zela auziaren muina.

### 7.3.2. Getaria eta Zarautz elkartzetik bidean

1393-V-14an Getariako prokuradoreak eta Zarauzkoak Getariako Salvatore elizako sakristian bildu ziren, bi hiribilduetan bizi zirenen artean Ermandadea egin eta elkarbizitzarako baldintzak finkatu nahian. Zestoa ere Getariarekin gauza bera egin nahiko zuelako, interesgarria da zarauztarrek eta getariarrek egindako itunaren baldintzak jakitea.

Zarauzko bi alkateak (Joan Santxez Ibarrolakoa eta Pero Ibañez Oriokoa) eta beste zenbait zarauztar prokurazio-agiriarekin aurkeztu ziren. Getariaren aldetik, berriz, Joan Ibañez Portukoa eta Joan Ruiz Legarraldekoa alkateak beste zinegotzi batzuekin etorri ziren. Zarauztarrak Getariako auzotar izango ziren, baldintza hauek beteta:

- Zarauztarrek beren alkate, probestu eta ofizialak ordura arte bezalaxe izango zituzten, eta Getariakoek ez zuten Zarautzen aginpiderik izango. Zarauztarrek, ordea, bigarren auzialdirako Getariako alkateengana jo beharko zuten, eta hortik kanpo Donostiakoengana edo erregearen Gortekoengana, hala nahi bazuten. Zarauzko alkateak epaia emanda inork erregearengana zuzenean jo nahiko balu, jo zezakeen Getariako alkateengandik igaro gabe.

- Zarauztarrek ordura arte bezalaxe beren lurralde, mendi eta basoen baliatuko ziren.

- Zarauztarrak ez ziren Getaria zaintzera joango, eta ez zituzten Getariako harresian, galtzadetan, iturrietan eta zubietan egin beharreko konponketak ordainduko.

- Auziak galduz gero, herri bakoitzak bere auzien gastuak ordainduko zituen.

- Inork Getaria eta Zarautzen lurren edo eskubideen aurka egiten bazuen, auzia amaitu arte kostua bakarria izango zen, eta azkenean sukaldeko sistemaz ordainduko ziren gastuak.

- Zarauzko auzotarrek Ahaide Nagusien bandoetan joan nahi bazuten, Azpeitia, Azkoitia eta Elgoibarko auzotarrak bezala joan zitezkeen. Zarauzko oinetxeokoen joan ahal izango ziren edonoren aurka, baina Getariako hiribilduaren eta Getariako auzotarren aurka ez.

- Gipuzkoako Batzarretara Getariako prokuradorea joango zen, eta urte amaieran gastuak sukaldeka banatuko ziren. Zarauzkoek beren prokuradorea aparte bidali nahi bazuten, haiek ordainduko zuten beren ordezkaria, eta ez Getariak bidalitakoa.

Getariako Kontzejuak gerrarako deia egiten bazuen, Zarauzkoak joan egingo ziren, baina deiaren jarraipenean egiten ziren gastuak Getariak ordainduko zituen. Gerrarako deia Zarautzek egiten bazuen, Getariakoak joan egingo ziren, baina hortik sortutako gastuak Zarautzek ordainduko zituen<sup>3</sup>.

Aipatutako itun honen antzekoa sinatu zuten Zestoa eta Getariak hurrengo urtean. Bitxia badirudi ere, erregearen berrespen-agiria hain zuzen urtebete lehenagokoa da, 1393-XII-15koa (ikus [XIV. m. 15] agiria).

Urte hartan, 1393an, Bizkaiko eta Gipuzkoako itsasontziekin (eta Sevillako beste batzuekin) espedi-

zioa egin zen Kanariar irletara. Han, Lanzaroten, bertako erregeak eta hainbat biztanle preso hartu zituzten<sup>10</sup>.

### 7.3.3. Auzia Zumaiarekin

1393ko ekainaren 4an bildu ziren Ibañarrietan Zestoako, Aizarnazabalgo eta Zumaiako ordezkariak. Zumaiakoek Orreagako komentua ere ordezkatzeko zuten. Han ziotenez, Aizarnazabalgo kolazioko jendea Zestoako jurisdikziora sartu berria zen, baina zumaiarrak ez zeuden ados. Haien arbasoek beren buruak eta ondorengoak lotu egin zituzten Orreagak Zumaiari zuten ondasunetaz gozatzeagatik urtero errenta ordaintzera. Aizarnako kolazioko batzuek ere ordaindu beharra zuten, zeren haien arbasoak Zumaiari populatzen joan zirenean errenta ordaintzeko obligazioa hartu baitzuten.

Aizarnazabalgoek ziotenez, ordea, Zestoako auzotar izanik ez zuten ezer ordaindu beharrik.

Auzia ebazteko lau arbitro izendatu zituzten, eta lau haien artean bosgarrena ere izendatu ahal izango zuten, behar izanez gero. Arbitro edo epaile haiek zintzuz egin eta testigantzak jasoko zituzten edonon, Getarian izan ezik (agian Zumaiarekin Getaria ongi kontuz ez zelako).

1393ko abuztuaren 13rako eman behar zuten epaia, edo, bestela, auzia hasi baino lehenagoko egoerara itzuliko ziren. Epaiaen aurka gora jotzerik ez zuten izango. Epaia betetzen ez zutenentzat isunak ere finkatu ziren.

Ez dugu inon ikusi abuztuaren 15a baino lehenagoko epairik. Aitzitik, 1394ko zenbait agiritan (ikus [XIV. m. 17] agiria) Aizarnazabal Zestoari loturik azaltzen da.



7.4. irudia. Ibañarrietako Bentazarra.

## 7.4. 1394. URTEA

### 7.4.1. Azpeitia eta Aizarnazabalgo elizetako patronatuak

1393. urteari dagokion atalean ikusia dugu Martin Zalba Iruñeko apezpikuak eskumikatutako aizarnareri barkamena eman ziela. Ikusia, dugu, halaber, Iraetako San Joan Latrangoaren eliza ere bazela apezpikuaren agindupetik kanpo. 1394. urtean, ordea, Azpeitiko Soreasuko parrokiakoak eskumikatu zituen Martin Zalbak berak.

Urte batzuk lehenago, esana dugunez, Martin Zalbak Pelegrin Engomez izendatu zuen Soreasuko elizako erretore, baina bertako jendeak oztopokak ipini zizkion erretore berriari; izan ere, erregearengandik jasota, azpeitiarrek eskubidea zuten erretore berria apezpikuari proposatzeko. Sistema hori ez zegoen Iruñeko elizbarrutiko leku gehiengotan indarrean, baina Gipuzkoan eta Bizkaian ohikoa zen.

Pelegrin Engomezek Avignongo Aita Santuaren epaitegira jo eta auzia irabazi egin zuen (1388. urtean). Henao historialariaren arabera, Gaztelako Joan I.a erregeak Soreasuko elizaren patronatua eliztarrei kendu eta Beltran Ibañez Oñazkoari eman zion 1387-V-10ean Cuellar herrian sinatutako agiriaren bidez, eta geroago (1391-IV-20an) errege berak berretsi egin zion mesedea. Azkenik, Enrike III.ak Salamancako Pelayos herrian, 1394-IV-28an, berriz ere Soreasuko patronatua Oñazko jaunaren esku utzi zuen<sup>11</sup>.

Orduan Beltran Ibañezek Pelegrin Engomez erretorea egotzi eta elizako hamarren zein errenta guztien jabe egin zen. Ondoren Martin Zalba kardinalak eskumikatu egin zituen berrogei azpeitiar (bakoitzaren izen-deiturak zehatz-mehatz idatzita) Avignonen 1394-IV-16an sinatutako agiriaren bidez. Soreasuko San Sebastianen parrokiari interdiktua ezarri zion. Ondorioz, parrokia horretan elizkizunik, hiletarik eta hilobiratzerik ez zen izango<sup>12</sup>.

Aizarnazabalgo San Migel elizaren patronatua ordura arte Martin Santxez Oikiakoak eduki zuen, Gaztelako Joan I.a erregeak mesede eginda. 1394. urte hasierarako, ordea, Martin Santxez hila zen, eta Gaztelako Enrike III.a erregeak Aizarnazabalgo elizaren patronatua (hamarrenak, errentak eta fruituak) Joan Beltran I.a Iraetari bizialdi osorako eman zion 1394-I-7an sinatutako agiriaren bidez (ikus [XIV. m. 16] agiria). Agiri horretantxe Fernando Perez Aiara-koa Gipuzkoako merio nagusiari eta gainerako merioei agindua eman zien erregeak, agiriak zioena betearaz zezaten.

Kontuan hartu behar dugu zenbaiten iritziz 1394. urtean Gipuzkoako merio nagusi Pero Perez Aiara-koa izan zela<sup>13</sup>. 1394. urtean bertan Bizkaian eta Enkartzioetan Ermandadeko Ordenantza berriak onartu zituzten Ahaide Nagusien eta hauen taldeetakoen aurka. Gonzalo Moro, Bizkaiko korrejidorea, izan zen buru Ordenantza haiek Gernikan (urriaren 29an) eta Avellaneda edo Urrestietako Batzarretan onartu zirenean<sup>14</sup>.

Gogorra omen zen Gonzalo Moro Bizkaiko korrejidorea gaizkileak zigortzen. Basoa eta zuhaitzak maite omen zituen. Oñaztarrek eta ganboatarrek gorroto omen zioten, haiek zigortu egiten zituelako. Horregatik esaera hau zabaldu omen zen: “Gontzalo Moro, tati, tati, gaxtoa gaxtigaten daki”<sup>15</sup>.

### 7.4.2. Zestoa eta Getaria elkarturik

“Agiritegia” atalean interesgarriak dira [XIV. m. 17], [XIV. m. 18] eta [XIV. m. 19] agiriak. Lehenbizikoa Aizarnako parrokiari 1394-II-2an egina da, eta bertan Zestoako hiribilduko, Aizarnako kolazioko eta Aizarnazabalgo kolazioko jendeak Kontzejua osatuta ordezkariak hautatu zituen Getariako hiribilduarekin auzotasun- eta ermandade-ituna sina zezaten. Ituna hurrengo egunean, 1394-II-3an, sinatu zuten Getariako Salbatore elizako sakristian. Agiri honetan garbi azaltzen da itunean Aizarnazabalgo kolaziokoek ere

parte hartu zutela. Beraz, aurreko urteko ekainaren 4an Ibañarrietan egindako agiriaz gero aizarnazabaldarrak Zestoako auzotar izan ziren, baina ez dakigu egoera hark zenbat denbora iraun zuen.

Auzotasun-itunean bi herriko biztanleek elkarrekin bete behar zituzten baldintzak zehazten dira. [XIV. m. 18] agiriko “Edukiaren laburpena” atalean daude zehaztuta baldintza horiek. Interesgarria da Ahaide Nagusiei dagokien atala, hain zuzen Iraetakoarekin zuzeneko zerikusia duelako. Zestoako hiribilduko eta aipatutako kolazioetakoek Ahaide Nagusiekin joan nahi bazuten, Azpeitia, Azkoitia eta Elgoibarko auzotarrak bezala joateko aukera izango zuten. Iraetako oinetxearekin ere joan ahal izango ziren zestoarrak, beste edozein Ahaide Nagusiren aurka, baina Getariako auzotarren aurka ez. Horrela joandakoek zigorrik izaten bazuten, beraiek ordaindu beharko zuten. Argi eta garbi ikusten da, beraz, Ahaide Nagusien erakundeak bizi-bizirik jarraitzen zuela XIV. mendearan<sup>16</sup>.

Bi hilabete geroago, 1394-IV-1ean, Gaztelako Enrike III.a erregeak Avilan onetsi egin zuen zestoarrrek getariarrekin egindako ituna (ikus [XIV. m. 19] agiria), Ahaide Nagusiei buruzko baldintza eta guzti, hain zuzen.

### 7.4.3. Beste zenbait

1394. urteko irailaren 29an, Debako Andre Mariaren elizan bildu zen Kontzejua, eta herrirako Ordenantzak onartu zituzten. Fernan Migelez Irarrazabalgoa (edo Irarrezabalgoa) zen alkate, Joan Ruiz Irarrazabalgoa probestu eta Pedro Sarasola zinegotzi, besteak beste. Hiribilduko delituei aurka egiteko jarri zituzten indarrean Ordenantzak<sup>17</sup>. Debako “Ordenantza” horien kopia bat, besteak beste, Zestoako Udal Artxiboan dago, eta oraindik orain horien transkripzioa ere argitaratu egin da<sup>18</sup>. 47 kapitulu dituzte Ordenantzek<sup>3</sup>.

Avignonen, bestalde, Klemente VII.a aita santua hila zen, eta haren ordezkari Pedro Luna Aragoiko kardinala hautatu zuten, hau da, Benedikto XIII.a aita san-

tua. Frantziako erregeak ez zuen atsegin Aita Santu aragoitarra, eta laster hasi zen lanean Avignongoak eta Erromakoak dimisioa batera eman zezaten<sup>9</sup>. Nafarroa leial jarraitu zitzaion Benedikto XIII.a aita santuari, eta jarraitzaile sutsuenetako bat Martin Zalba Iruñeko apezpiku eta kardinala zen<sup>19</sup>.



7.5. irudia. Debako Andre Mariaren eliza.

## 7.5. 1395. URTEA

### 7.5.1. Errege-zergak, Ahaide Nagusiak, etab.

Gaztelako Enrike III.a *Gaixotia* erregeak 1395-I-26an Medina del Campon egindako agiri baten bidez, Ebroz bestaldeko Merindadeari, Gipuzkoa barne zela, 1389. urteaz gero Joan I.a erregeari zergatan zor zizkioten eta ordaindu ez zituzten 600.000 marai kobratzea agindu zuen.

1395eko martxoaren 15ean Alcala de Henaresen beste agiri bat sinatu zuen errege berak. Kalagorriko elizbarrutiko zerga-biltzaile zen Fernan Martinez San Miliangoari eman behar zizkion Ebroz bestaldeko merindadeak (eta Gipuzkoak) 600.000 marai<sup>3</sup>. 1389. urteaz gero Gipuzkoak erregeari ez zizkion, nonbait, zergak ordaindu, zerga hura ez zegokiola argudiatuta. Urte hartan Gipuzkoako korrejidore eta merio nagusi Fernan Perez Aiarakoa zen, Pero Lopez Aiarakoaren semea<sup>6</sup>.

Oñatiko jaun Beltran III.a Belez Gebarakoa bertan zen urte hartan, baina urtarrilaren 24an Santa Kurutze

Kanpezun testamentua egin zuen. Oñatiko maiorazkoa sortu zuen, honako hauek barne hartzen zituela: San Migelgo monasterioa, Leintz, Leintz-Gatzaga eta bertako jaurerria, eta Gatzagarengan betiko bereak zituen 25.000 marai<sup>7</sup>.

Nafarroarentzat 1395a urte txarra izan zen. Izurritea izan zen, eta uzta kaskarrak bildu zituzten. Ondorioz, Karlos III.a erregeak zenbait herritako zergak jaitsi egin behar izan zituen<sup>19</sup>.

Avignongo Benedikto XIII.a aita santuak estutasunak zituen. Frantziako Karlos VI.a erregeak ez zuen gogoko, eta dimisioa eman zezan presio egin zion. Aita Santuak ezezkoa eman zuen, naiz eta alde jende gutxi eduki. Erromako Aita Santuari kargua indarrez uztaraztea proposatu zien frantziarrei Pedro Luna edo Benedikto XIII.a aita santuak. Martin Zalba beti lagun izan zuen. Martin Zalbak 1395-IX-2an Altzako eliza Donostiako mendekotzat izendatu zuen, eta altzatarrei Donostiako harresi barruko parrokiekin zer-nolako harremanak izan behar zituzten finkatu zien<sup>9</sup>.

## 7.6. 1396. URTEA

### 7.6.1. Gonzalo Moro Gipuzkoan korrejidore, eta Anegiren eskualdatzea

1396-IV-26an Enrike III.ak Guadalajaran errenteriarren alde emandako epai batean Gonzalo Moro agertzen zaigu Gipuzkoako korrejidore, eta Fernando Perez Aiarakoa merio nagusi. Gartzia Martinez Elduaiengoaren semea zen, berriz, Gipuzkoako alkate nagusi<sup>6</sup>.

Gonzalo Moro urte hartan Bizkaiko eta Enkartzioetako korrejidore ere izan zen. Ahaide Nagusien gehiegikerien aurka lan handia egin zuen. Getarian 1396-II-23an Donostiako Kontzejuko ordezkariak

Nafarroako Antso VI.a erregeak emandako foruaren kopia ateratzeko baimena eskatu zioten<sup>3</sup>.

Elizan, berriz, Banedikto XIII.a aita santuaren aurkako mugimendua gero eta handiagoa zen. Martin Zalba kardinala eta Nafarroako erreinua alde atera zitzaizkion, nahiz eta Nafarroako Karlos III.a erregeak Frantziako erregearengandik laguntza kentzeko presioak izan<sup>9</sup>.

Urte hartan, 1396-II-18an, Fernando Perez Undakoak (Pedro Ibañez Undakoaren eta Santxa Gartzia Aiakoaren semeak) anaia Gartzinari Lasako Anegiko lur eta mendiak eman zizkion (ikus [XIV. m. 20] agi-

ria). Fernando Perez Undakoak lur horiek Pero Saez Odriakoari eta Maria Saez Odriakoari erosi zizkien, eta anaia Gartzari behin betiko eman zizkion. Gero

Lasaoko burdinolakoak izango ziren lur eta mendi horiek.

## 7.7. 1397. URTEA

### 7.7.1. Gipuzkoako Ordenantzak, etab.

1397-VII-6an, Getariako Salbatore elizako koroan, Gonzalo Moro doktorea (Gipuzkoako korrejidorea) buru zela, Gipuzkoako hiribildu eta Alkatetza Nagusietako (Areria, Aiztondo eta Saiazko) prokuradoreak bildu ziren. Gipuzkoako Ermandaderako 60 kapitulu idatzi eta onartu zituzten. Lehengo ordenantza batzuk aldatu eta berriak idatzi ziren, eta beharrezkotzat jo zituzten guztiak berretsi egin ziren. Gaztelako Enrike III.a erregeak agindu zion Gonzalo Moro korrejidoreari lan hura egin zezan, azkenaldiko gatazkak eta gaiztakeriak amaiaraztearren<sup>3</sup>.

Oraingo Gipuzkoako herri eta auzo guztiak zeuden Getarian ordezkaturik, baina Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriatzakoak ez, hauek orduan Gebara etxearen mendeko jaurerri zirelako.

Ordenantza haietan arau penalak, gaizkileen aurkako neurriak, bideak eta bidaiariak babesteko neurriak eta beste hainbat arlori buruzko arauak jaso ziren<sup>4</sup>. Ez da ahaztu behar garai hartan Ahaide Nagusiak bandoetako gerran zebiltzala eta jende arruntari bidegabekeria ugari egiten zitzaiola. Gaizkileak ere ugari ziren, eta jendearen kezak maiz iristen zitzaizkion erregeari<sup>7</sup>. Ordenantzek oso zigor gogorak ezarri zituzten gaizkileentzat, eta aipamenen bat ere egiten da oinetxeetako jaunen aurka, askotan gaizkileen babesle zirelako<sup>14</sup>.

Getariako 1397-VII-6ko Batzarrera bildutako prokuradoreek honako herri, auzo eta alkatetza nagusi hauek ordezkatu zituzten: Hondarribia, Oiarzun, Donostia, Hernani, Urnieta, Usurbil, Zarautz, Arrasate, Orio, Getaria, Zumaia, Deba, Mutriku, Bergara, Elgeta, Azpeitia, Segura, Leintz-Gatzaga,



7.6. irudia. Getariako elizako plaka, ordenantzen seigarren mendeurrenean ipinia.

Eibar, Ordizia, Elgoibar, Zestoa, Andoain, Soraluze, Urretxu, Azkoitia eta Saiaz, Aiztondo eta Areriako Alkatetza Nagusiak. Batzarrean Bizkaia, Enkartzazio eta Gipuzkoako korrejidorea, Gonzalo Moro, zen buru.

Gipuzkoako Ermandaderako onartu ziren Ordenantzetan Ermandadearen funtzionamendu-arauak ezarri zituzten. Gipuzkoan zazpi ermandade-alkate izango ziren, eta bakoitzak bere barrutian lan egin beharko zuen<sup>13</sup>. Orduan hasi zen Gipuzkoa Probintzia gisa erakundetzen<sup>20</sup>.

Batzarretarako korrejidoreari dei egitea agintzen zuen ordenantzak, baldin lurraldean bazez, edo, bestela, alkate nagusiari. Gorosabelen ustetan, Batzarrek legezkoak izateko beharrezkoa zen korrejidoreari edo haren alkateari dei egitea. Ermandadeko hiribildu eta lekuetako ordezkariak Batzarretara joatea ere beharrezkoa zen. Batzarretako prokuradore izateko pertsonak gai izan behar zuen.

Getariako 1397-VII-6ko Ermandade Batzarreko aktak Gipuzkoako hiribildu eta Alkatetza Nagusiko ordezkariak sinatu zituzten, eta haiekin batera eskribauak, Gipuzkoako alkate nagusi zen Gartzia Martinez Elduaiengoak, Otxoa Urtiz Oruekoa merioak eta zenbait lekukok. Adierazi beharra dago 1397ko Getariako Batzarrean Gipuzkoako merindadea osatzen zuten lau erakundeak zeudela ordezkaturik: hiribilduak, auzoak, Alkatetzak eta Lur zabala.

Ermandade-alkateek jurisdikzio kriminala ere bazuten gaizkileen eta haien ondasunen aurka. Alkateak emandako epaiaren aurka ez zegoen gora jotzerik. Ermandade-alkatearen zinak froga-balioa zuen auzian.

Korrejidorea Probintzian ibiltzen zela diote ordenantzek. Batzarretarako dei egin behar zitzaion, baina korrejidoreak ordainduko zituen bere gastuak. Korrejidoreak ermandade-alkateak preso hartu eta kartzelara sar zitezkeen. Haiei isunak jartzeko ahalmena ere bazuen.

Alkate nagusia merindadeko lurraldeetan ibiltzen zen, ordenantzen arabera. Batzarretara joan behar zuen, korrejidorerik ez zegoenean, eta Batzarretan egiten zituen gastuak alkateak berak ordaindu behar zituen. Korrejidorearen ordezkari ermandade-alkateak preso har zitezkeen, eta isunak ere jar zitezkiekeen.

Merioa ermandade-alkatearekin ibiltzen zen, eta epaiak betearazi egiten zituen. Exekuzioetan bere saria jasotzen zuen, baita lapurra exekutatzen zenean ere.

Foru-alkateak erabakitzen zuen mendiak soiltzeagatik zenbaterako isuna ezarri. Burdinoletoako kideek ere foru-alkateari egiten zizkieten beren eskabideak.

Probestuak hiribilduko isun ekonomikoak jasotzen zituen, eta hiribildutik kanpo ezarritakoak jasotzea merioaren eginkizuna zen.

Azkenik, zenbait delitu aldi berean bat baino gehiagoren eskumen izan zitezkeen. Korrejidoreak, errege-alkateak, ermandade-alkateak edo foru-alkateak esku har zezakeen desafioko fidatzaileak hartzeagatik.

Probintziako Batzarra zergatik bildu behar zen zehazten dute ordenantzek. Erregearekin harremanak izateko eta probintzia gobernatzeko bil zitezkeen. Gipuzkoako lurralderako zazpi ermandade-alkatetza (edo merindade txiki) eta bakoitzaren barrutia finkatu zituzten.

Lehen barrutiak hauek hartzen zituen: Segura (eta hari atxikitako auzoak), Urretxu (eta atxikitako auzoak) Ordizia (eta hari atxikitakoak) eta Areriako Alkatetza Nagusia

Bigarren barrutian Tolosa (eta hari atxikitako auzo guztiak), Hernani eta Aiztondoko Alkatetza Nagusia zeuden.

Hirugarren barrutian hauek zeuden: Donostia, Hondarribia, Errenteria eta Oiartzungo lurraldea, Astigarraga, Usurbil eta honen auzoak.

Laugarren barrutian hauek zeuden: Arrasate, Bergara, Leintz Gatzaga, Elgeta, Soraluze, Eibar eta hauen auzoak.

Bosgarren barrutikoak ziren Mutriku, Deba, Zumaia, Mendaro eta haien auzoak.

Seigarren barrutia honako hauek osatzen zuten: Getaria, Zestoa, Zarautz, Orio eta haien auzoak.

Zazpigarren barrutikoak ziren Azkoitia, Azpeitia (beren auzoekin) eta Saiazko Alkatetza Nagusia.

Merindade txiki edo barruti hauetako bakoitzak Kontzejua kanpaia jota bildu eta ermandade-alkatea aukeratuko zuten. Alkateak gizon ona, ondasunen jabea behar zuen izan, eta Ahaide Nagusien tregoetan sartu gabea. Ermandade-alkateek beren kargua hartzean zin egin behar zuten elizan Gurutzearen eta liburu santuaren aurrean, Kontzejua bertan zela. Merindade txiki bakoitzean zin egiteko eliza edukitzea iradokitzen da.

Getarian 1397-VII-6an egindako Batzarreko Ermandade-koaderno edo Ordenantzetan (58. atalean) beste batzar batzuk (gero Batzar Berezi izango zirenak) egiteko bidea ere adierazten da<sup>21</sup>.

Esana dugu seigarren Ermandade-barrutia Getariak, Zestoak, Zarautzek eta Oriok osatzen zutela. Ermandade-alkatea urtero hautatzen zuten (San Joan egunez), baina bi urtez jarraian Getariak aukeratzen zuen, eta hirugarren urtean Zestoak. Gero laugarren eta bosgarren urtean berriz ere Getariak, eta seigarren urtean Zestoak<sup>22</sup>.

Ermandade-alkateak ahalmenak zituen bost kasu ikertu eta bizkor epaitzekoak: bideetan eta jenderik gabeko lekuetan egindako hilketa, lapurreta, su emate, basoak botatze eta, oro har, indarkeriazko delituak. Ermandadeko barrutiko jendea biltzeko deia ere egin zezakeen, gaiztaginak jazartzeko edo Ahaide Nagusien oinetxe eta dorreei erasotzeko, adibidez.

Hiribilduko jendeak egindako delituetan ez zuen eskumenik, hiribilduko alkateak zuelako. Alkatetza Nagusietako jendeak egindako delituetan ere ez zuen eskumenik<sup>23</sup>. Ermandade-alkateak 750 maraiko soldata zuen urteko, eta horrez gain auzietako isunetatik ere kobratzen zuen (100-2.000 marai bitartean).

Getariako Batzarrean hiribilduetako eta Alkatetza Nagusietako prokuradore bakoitzak sukalde kopuru bat ordezkatzeko zuen, eta kopuru horren arabera boto kopurua zuen gero Batzarrean egiten ziren hautaketetan. Gastuak ere sukalde kopuruaren arabera ordaintzen ziren<sup>24</sup>.



7.7. irudia. Getariako Salbatore elizako ate gotiko bat.

Gonzalo Moro korrejidoreak Bizkairako eta Enkartazioetarako Ermandade-koadernoa egin zuenean, bizkaitarrek lehendik zituzten Ordenantzak aztertu egin zituen lehenbizi, baina Gipuzkoan ezin izan zuen beste horrenbeste egin, Enrike II.a eta Joan I.a erregeen garaiko Ordenantzak eskuratzea lortu ez zutelako. Beraz, hutsetik hasitako lana izan zen Getariakoa, 1397-VII-6koa<sup>6</sup>.

Getariako Batzarreko Ordenantzetan, bestalde, gipuzkoar guztiak kapareztat hartzen dira<sup>25</sup>.

Dena den, Getarian 1397. urtean beste gertaera azpimarragarri baten berri ere eman zuten. Hiribildua erre egin zen, eta herria hustuta gera ez zedin, Enrike III.a *Gaixotia* erregeak Madrilen 1397-XII-12an sinatutako agiriaren bidez, getariarrek zergak 3.000 marai gutxiago ordaintzeko zuten pribilegioa errespetaraztea agindu zuen<sup>3</sup>. Urte hartantxe Donostian ere erre ziren etxe batzuk<sup>13</sup>.

Getariako Batzar famatua egin baino lehen, 1397-IV-15ean, Fernando Perez Aiarakoa azaltzen da Gipuzkoako korrejidore eta merio nagusi. Zestoako Udal Artxiboan Hondarribian delako korrejidoreak egindako agiria dago, eta Diego Salinas morroiari ahalordea eman zion, Gipuzkoan, edonorengandik, zor ziotena jaso zezan. Apirilaren 22an Azkoitian Diego Salinas jaunak agiria sinatu zuen. Bertan dioenez, zestoarregandik 375 franko jaso zituen, Fernando Perez Aiarakoari zor zikiotelako<sup>18</sup>. [XIV. m. 21]

agiriak dioenez, hain zuzen Otxoa Lopez Olazabalgoak, Joan Lopez Arriagakoak eta Gartzia Gesalagak ordaindu zizkioten Frantziako erregearen irudia zuten 375 franko. Fernando Perez Aiarakoak maileguz eman zien diru hura lehenago Joan Lopez Aiarriakoa eskribauaren aurrean egindako agiriaren arabera. Mailegua itzultzeko epea garizumako Pazkoa eguna zen.

Otxoa Perez Txurrukakoa eskribauaren aurrean itzuli zizkioten zestoarrek Azkoitian 375 franko Diego Salinasi. Lekuko Otxoa Martinez Iribekoa (azkoitiarra), Joango Sustaeta (azkoitiarra), etab. izan ziren<sup>18</sup>.

Gaztelako Enrike III.a erregeak 1397-VI-20ko agiri baten bidez berretsi egin zion Azpeitiko Soreasuko monasterioaren patronatua Beltran Ibañez Oñazkoari, Loiolako jaunari<sup>11</sup>.

Erroman eta Avignonon Benedikto XIII.a eta Bonifazio XI.a aita santuak elkarren aurka jardun zuten. Inguruko erreinuetako agintariek biei dimisioa eman zezaten presio egin zieten<sup>9</sup>.

## 7.8. 1398. URTEA

### 7.8.1. Arrasateko Batzarra, eta beste zenbait

1398-VI-13an Gipuzkoako zenbait herritako ordezkariak Arrasaten bildu ziren. Foru-zerga jaso nahi zuen Mosen Paredesi eskea egin zioten, zerga biltzeari utz ziezaion. Arrasate, Segura, Tolosa, Mutriku, Ordizia, Bergara, Zarautz, Leintz Gatzaga, Villabona, Alegia eta Getaria ziren Batzarrera prokuradoreak

bidali zituztenak. Batzarrean egindako eskakizunak baiezko erantzuna izan zuen, eta zerga kobratzeari utzi egin zioten<sup>4</sup>.

Orduan lortu zuten Gipuzkoan bertako biztanle guztiek, kapareek bezala, zergarik ez izatea. Gaztelako Enrike III.a erregeak herriek bidalitako kexei erantzunez 1398-V-10ean onartu egin zuen gipuzkoarrek zergarik ez ordaintzea<sup>25</sup>.



7.8. irudia. Arrasateko udaletxea.

Urte hartan pertsona berak zituen Gipuzkoako bi kargu, hau da, Fernando Perez Aiarakoa zen korrejidore eta merio nagusi, eta harrezkero korrejidorea aldi berean merio nagusi ere izango zen. Gipuzkoako alkate nagusi, berriz, Gartzia Martinez Elduaiengoa zen 1398. urtean. Aldi berean korrejidoreorde ere bazen delako Gartzia Martinez<sup>6</sup>.

Dirudienez 1398-XI-4an Gonzalo Moro zen Gipuzkoako korrejidore; izan ere, egun hartan Seguran epaia sinatu zuen Zumaiak Getariarekin mugei buruz zuen auzia ebazteko. Zumaiako kanalaren jurisdikzioaz eta bertan nabigatzeko eskubideaz zituzten gorabeherak bi hiribilduek. Badirudi epaian kanalaren jurisdikzioa Zumaiaren esku geratu zela eta getiarrei bertan ibiltzeko askatasuna aitortu zitzaie<sup>2</sup>.

Beste auzi garrantzitsu bat Avignongo eta Erromako Aita Santuekin zegoen. Zisma hartan Frantziako

Karlos VI.a erregeak Avignongo Benedikto XIII.ari obeditzeari utzi egin zion, eta Nafarroako zein beste erreinuetako erregeei eskea egin zien bide beretik jo eta Aita Santuek dimisioa eman zezaten. Benedikto XIII.ak ez zuen amore eman, eta Nafarroa leial jarraitu zitzaion.

Gaztelako erreinuak 1398-XII-13an utzi zion Avignongo Aita Santuari obeditzeari<sup>9</sup>. Frantziako tropek Benedikto XIII.a setiatuta eduki zuten, eta Martin Zalba kardinala, beste zenbait nafarrekin, laguntzaile izan zuen<sup>19</sup>.

### 7.8.2. Zestoako burdinolen eta hiribilduaren arteko auzia

1398-XII-29an Zestoan itun bat egin zuten Kontzejuak eta herriko olagizonek (ikus [XIV. m. 22] agiria). Herriko mendien ustiatzeari eta auzotasunari buruzko konponduezinak zituzten, hain zuzen. Horregatik

Zestoako Kontzejua, alde batetik, eta bertako burdinoletoako jabe eta olagizonak bestetik, hiru arbitro edo epaile aukeratu zituzten auzia ebatz zezaten. Kontzejutik Fernando Ibañez Ezenarrokoa zen alkate, Martin Lopez Aranokoa zinegotzi eta Antso Ibañez Sorazabalgoa prokuradore. Olagizonak, berriz, hauek ziren: Beltran Ibañez Iraetakoa, Joan San Joan Ezenarrokoa, Otxoa Lopez Olazabalgoa, Gartzia Perez Undakoa, Joan Fernandez Ezenarrokoa eta Joan Martinez Legarregikoa.

Lehendik auzia Gonzalo Moro korrejidorearen aurrean aurkezturik zuten, baina nahiago zuten hiru arbitroek (aho batez edo gehiengoz) epaia ematea. Beltran Arteaga (zumaiarra), Joan Perez Etxezurikoa (zumaiarra) eta Joan Ibañez Izetakoa (aiarra) ziren aukeratutako arbitroak.

Epaia betetzen ez zuenak Aragoiko erregearen urrezko mila florin ordainduko zituen. Erdia Aizarna-

ko elizako lanetarako izango zen, eta beste erdia epaia bete zuen aldearentzat. Pero Lopez Bergarakoa eskribauak idatzi zuen ituna<sup>18</sup>.

Garbii kustend aZ estoanX IV.m endearena maieran burdingintzak garrantzi handia zuela. Altzolarasko burdinolakoa dela iruditzen zaigu agirian azaltzen den Otxoa Lopez Olazabalgoa. Iraetan ere burdinola bazela esan daiteke, bertako Beltran Ibañez Iraetakoa jabe izanik. Lasan egon zitekeen besteb urdinolab at.G artziaP erezU ndakoao lagizona aipatzen da. Diez de Salazar historialariaren iritziz, Gartzia Perez Joan Gartzia Lasakoaren aita zen, hau da, gero Lasako burdinolaren jabe izango zena<sup>26</sup>.

Hauez gain Joan Sant Joan Ezenarrokoa, Joan Fernandez Ezenarrokoa eta Joan Martinez Legarregikoa olagizonak aipatzen dira, baina ez dakigu hauek Zestoako zein burdinolatakoak ziren.

## 7.9. 1399. URTEA

### 7.9.1. Beaingo San Lorenteko epaia

Lehen ere, 1393-VI-4an, ikusia dugunez ([XIV. m. 14] agiria), Aizarnazabalgo biztanleak Zestoako hiribilduko auzotar bihurtu ziren, eta halaxe jarraitzen zuten 1394-II-3an ere (ikus [XIV. m. 18] agiria). Hain zuzen Zestoak Getariarekin auzotasun-ituna sinatu zuenean bere jurisdikziopean zituen Aizarnazabalgoak.

Ez dakigu noiz arte iraun zuten Aizarnazabalgo San Migel parrokiakoek Zestoaren baitan, baina 1399-VIII-6an beste itun bat sinatu zuten Zumaiako eta Zestoako hiribilduek (ikus [XIV. m. 23] agiria). Itun horretan esaten denez, Aizarnazabalgoak Zestoako jurisdikziora sartu berriak ziren. Beraz, 1394-II-3a eta 1399-VIII-6a bitartean aizarnazabaldarrak denboraldi batez Zumaiako jurisdikziopean egon ziren, baina Aizarnazabal berriz ere Zestoara bildu zen, eta auzia “Iruñeko Ofizialaren” esku zegoen. Hain zuzen Iruñeko Ofizial hori elizbarrutiak Gipuzkoarako

Donostian zeukan “Kanpoko Ofiziala” izan zitekeela pentsa liteke.

Zestoak eta Zumaiak, ordea, nahiago izan zuten bina arbitro izendatzea: Joan Martinez Gesalagakoa eta Joan Lopez Arriagakoa (zestoarrek), eta Joan Martinez Ganboakoa eta Joan Ruiz Ibiakaizkoa (zumaiarrek). Lau haiek Beaingo San Lorenten zin egin eta denek bete beharreko epaia emango zuten. Behar izanez gero, lau arbitro haiek bosgarrena ere izendatuko zuten. Epaia hurrengo iraileko San Migel egunerako jakinaraziko zuten, baina epea luzatzea ere eska zezaketen.

Dena den, epaia 1399-XII-6an eman zuten Beaingo San Lorente elizan (ikus [XIV. m. 24] agiria). Aizarnazabalgoak aurrerantzean Zumaiako auzotar izango ziren, eta Zumaiako gastuak ordaintzen parte hartuko zuten. Aizarnazabaldarrek Orreagari urtero ordaindu beharreko errentan ez zuten parte hartuko,



7.9. irudia. Zestoa. Beaingo San Lorente ermita.

eta, bestalde, 1399-XII-6a arte Zumaiak zituen zorretan ere ez.

Beaingo San Lorente ermita Aizarnazabalgo parrokiaren mendekoa izan zen. Argi eta garbi ikusten da zin egiteko ermita zela. Diotenez, jentilek Garate menditik botatzen zituzten harriekin eraiki zuten. San Lorenteri otoitz egiten zioten soroetako gorrinatik libra zitzaiz. Tradizioak dioenez, San Lorenteko ermitan hilerria egon zen<sup>27</sup>. Orain ermita osoa Zestoako lurretan dago, eta interesgarria izango litzateke arkeologoek industea.

Aizarnazabal zela medio Zumaia eta Zestoa auzitan zebiltzan 1399. urte hartan, Fernando Perez Aiarakoa zen Gipuzkoako korrejidore eta merio nagusi<sup>6</sup>.

Beaingo San Lorenten ebatzitako auzian Zestoatik joandako pertsonetako bat Beltran Ibañez Iraetakoa zen (ikus [XIV. m. 23] agiria), baina agian pertsona

bera, Beltran Ibañez Iraetakoa, Markina-Xemeingo Amalloa auzoan bizi zen. Bizkaiko eta Enkartzazioetako korrejidore Gonzalo Moro jaunak Bizkaiko prestameroarekin eta lau foru-alkaterekin batera 1399-XII-18an Gernikan emandako epai batean azaltzen da. Mendiak ustiatzeari buruzko auzia zuten, alde batetik Lekeitioko hiribilduak, eta, bestetik, (Martin Iñiguez Lekoiakoa eta Beltran Ibañez Iraetakoa prokuradore izanik) Amalloako biztanleek. Epaia Lekeitioko hiribilduaren aldekoa izan zen<sup>28</sup>.

Bestalde, Lope Martinez Isastikoaren arabera, Gaztelako Enrike III.a *Gaixotia* erregeak 1399-I-24an Santa Maria de Pelayosen, Salamancan, sinatutako agiria bidez Gipuzkoako hiribildu eta Alkatetza Nagusikoen kaparetasuna aitortu zuen<sup>5</sup>.

1399. urtean pil-pilean zegoen beste gai bat Eliza katolikoaren zisma zen. Frantziako erregeak ez zion Avignongo Benedikto XIII.a aita santuari obeditzen

aurreko urteaz gero, eta Nafarroako Karlos III.a ere bide beretik joatea nahi zuen. Gaztelako erreinuak ere ez zuen onartzen Benedikto aita santutzat. Benedikto

XIII.ari Avignonen setioa altxatu egin zioten. Iruñeko apezpikua, Martin Zalba kardinala, beti bezala, leial jarraitu zitzaion<sup>9</sup>.

## 7.10. 1400. URTEA

### 7.10.1. Genealogiak, izurritea, nabigazioa, etab.

Zestoan Lili etxeko familian 1326. urtean Martin Diaz jauna azaldu zitzaigun bertako jabe, nahiz eta albistearen fidagarritasunaz zalantzak izan. Dirudieenez, aipatu dugun Martin Diaz jauna Teresa Irrazabal andrearekin ezkondu zen, baina emaztea 1400. urterako hila zen. Ezkontza hartatik Joan Beltran Lili jaio zen. Hura izango zen, gero, Liliko jauna<sup>29</sup>.


1400. urtean hildako beste pertsonaia bat Beltran III.a Belez Gebarakoa, Oñatiko jauna, izan zen. Zortzi seme-alaba izan zituen Mentzia Gartzia Aiarakoa emaztearengandik (lau seme eta lau alaba). Pedro II.a Belez Gebarakoa izan zuen oinordeko.

Horiez gain, Beltran III.a jaunak ezkontzatik kanpo hauek ere izan zituen: Joan Beltran Gebara semea (Ines Lazarraga oñatiarrarengandik) eta Konstantza Gebara alaba. Joan Beltran Gebara Zestoako

Altzolarats etxera ezkondu zen. Maria Beltran Iraeta andrearena zen Altzolarasko dorretxea, eta bertan munduratu zituzten seme-alabak. Joan Beltran, gero, Gaztelako Enrike IV.a erregearen enbaxadore izan zen Frantzian. “Mos Gebarakoa” ere deitzen zioten Joan Beltrani<sup>7</sup>. XIV. mendearen amaieran hasi ziren gebaratarrak Zestoan indar hartzen<sup>30</sup>. Ez da ahaztu behar, bestalde, Zestoako armariak makal-hostoak dituela, Gebara etxearen armariak bezalaxe.

Altzolarats jauregiko Joan Beltran Gebararen ondorengo bat izan zen Maria Beltran Gebara-Altzolarats (Martin Bañez Artazubiagakoa arrasatearraren emaztea), eta honen seme Hernando Gebara Joan Sebastian Elkanoren laguntzaile izan zen XVI. mendean Moluketara egindako bigarren bidaian<sup>31</sup>.

Gipuzkoan beste leinu famatu bat, oñaztarra, Loiolakoa zen. XIV. mendearen amaiera aldera, Beltran Ibañez Loiolakoak dorretxe bikaina eraiki zuen, ia bi metro lodiko harrizko hormak zituena<sup>32</sup>.



7.10. irudia. Loiolako dorretxea.

Osasunari eta bizimoduari zegokienez, 1400. urtea ez zen ona izan. Gosetea zegoen, batetik, eta izurritea bestetik. 1400. urtean izurritea Bizkaiko itsasoaren kostaldean agertu zen: Zarautz, Getaria, Donostia, Errenteria eta Hondarribian. Laster hedatu zen Gipuzkoa osora<sup>13</sup>. Bizkaira eta beste hainbat lekutara ere zabaldu zen izurritea<sup>33</sup>. Itsasontzien bidez hedatu ohi zen, portu batetik bestera. Ez da ahaztu behar euskal itsasontziak XIV. mendearen amaieran Kaukaso, Kanariar irlak eta Ipar itsasoraino iristen zirela<sup>34</sup>. Getariako pilotu eta itsasontziak, esaterako, salgaiak garraiatzen eta merkataritzan aritu ziren. Mediterraneoetik Flandes eta Ingalaterrainoko bidea egiten zuten. Genoa, Pisa, Palermo, Brujas, Anberes, Londres, Bristol, Southampton eta Arroxelan, adibidez, ibiltzen ziren. Andaluziatik Getariara garia ekartzen zuten. Merkataritzan eta arrantzan ez ezik, euskal itsasgizonak pirata gisa ere jarduten zuten<sup>35</sup>.

Urte hartantxe, 1400.ean, Lapurdiko Ermandade-ordenantzak onartu zituzten. Helburua gaizkileei eta bandotan zebiltzanen bidegabekeriei amaiera ematea zen. Garai hartan Lapurdi eta Zuberoa ingelesen aldekoak ziren<sup>20</sup>.

Abuztuaren 4an Orreagan (eta dirudienez 1400. urtean) Ximeno Aibar priorea eta bertako kalonjeak bildurik zeuden. Joan Martinez Amilibikoa, Zumaiako Kontzejuko prokuradorea, hartu zuten. Amilibikoa ahalordea erakutsi zien eta eskea egin zien: Orreagak onets zezala Zumaiako San Pedro elizako hamarrenak banatzeko proposatzen zen era. Jasotako hamarrenen laurdena Orreagari eta ibaia zeharkatze-

ko ontzi-zainari ordaintzeko izango zen, eta beste hiru laurdenak Zumaiako elizako apaizei ordaintzeko izango ziren.

Orreagakoek ziotenez, lehen apaiz bakarra zegoen San Pedro elizan, baina aurreikusia zuten hamarrenak eta opalkuntzak hazten zirenean bi apaiz eta bikarioa ipintzea. Zumaiako Kontzejuak aurkeztutako apaizak izendatuko zituzten (apezpikuari aurkeztuta) San Pedro elizarako.

Urte hartan jasotako hamarrenekin elizan hiru apaiz, bikarioa eta ibaiko ontzizaina mantentzeko modua zegoen. Orreagakoek ziotenez, hamarrenen laurdena ontzi-zaina eta ibaiko pasaia mantentzeko izango zen, beste laurden bat bikarioarentzat, eta gainerako beste bi laurdenak zati berdinetan banatuko zituzten hiru kapilauentzat.

Apaizen bat hiltzen zenean, Zumaiako Kontzejuak lau hilabete izango zituen bertako semeren bat hutsunea betetzearren Orreagako prioreari aurkezteko. Bestela prioreak zerizkionari emango zion hutsik zegoen postua (apezpikuak onetsita, jakina). Bikarioa hiltzen zenean ere berdin jokatuko zuten.

Orreagako prioreak zehaztu egin zituen apaizek zein lan egin behar zituzten elizan eta herrian. Garbi utzi zuten Zumaiako elizaren patronatua Orreagaren esku zegoela<sup>36</sup>.



## 7.11. irudia. Zestoako lehen toponimoak.

Toponimo bakoitzaren ondoan aipamen zaharrena noizkoa den adierazten da parentesi artean.

(\*): Zalantzazko kokalekua

Kokaleku ezezagunekoak: Olazabal (1380-II-4), Arriaga (1385-V-12), Argarai (1394-II-2), Unda (1394-II-2), Ibaieta (Aizarna) (1394-II-3) eta Legarregi (1399-VIII-6).

- |   |                                       |                                       |
|---|---------------------------------------|---------------------------------------|
| 1. Legazpi (ibaia) (oraingo Urola) (1290-IV-10) | 19. Lizarrarats (1385-V-12)           | 38. Bedama (1385-VII-18)              |
| 2. Aizarna (1303-III-22)                        | 20. Altzolarats (Bekola) (1385-V-12)  | 39. Beibategi (1385-VII-18)           |
| 3. Narruondo (1344-X-16)                        | 21. Arizmendi (1385-V-12)             | 40. Beetiaerreka (1385-VII-18)        |
| 4. Zestoa (1348-I-18)                           | 22. Txiriboga (1385-V-12)             | 41. Indo (bidea) (1385-VII-18)        |
| 5. Arroa, Arroakola (1349-?-15)                 | 23. Lili (1385-VII-18)                | 42. Errezubiaga (1385-VII-18)         |
| 6. Iraeta (1349-?-15)                           | 24. Aranburu (1385-VII-18)            | 43. Amilibia (1385-VII-18)            |
| 7. Akoa (1374-V-7)                              | 25. Urdanolaeta (1385-VII-18)         | 44. Zuube (1393-VI-4)                 |
| 8. Bedua (1379-VIII-19)                         | 26. Alkizorno (1385-VII-18)           | 45. Lizasoeta (1393-VI-4)             |
| 9. Agireta (sarioia) (1380-II-9)                | 27. Lasao (1385-VII-18)               | 46. Irao (1393-VI-4)                  |
| *10. Aria (sarioia) (1380-II-9)                 | 28. Anardierreka (1385-VII-18)        | 47. Ibañarrieta (1393-VI-4)           |
| *11. Urdinarana (iturria) (1380-II-9)           | 29. Anegüidoieta (1385-VII-18)        | 48. Irure (1393-VI-4)                 |
| 12. Ezenarro (1380-II-9)                        | 30. Ezuria (1385-VII-18)              | 49. Zabala (1394-II-3)                |
| 13. Apategi (1380-II-9)                         | 31. Upei (1385-VII-18)                | 50. Egaña (1394-II-3)?                |
| 14. Sorazabal (1380-II-9)                       | 32. Sañoa (1385-VII-18)               | 51. Gesalaga (1397-IV-22)             |
| 15. Erretzabal (1380-II-9)                      | 33. Unamendi (1385-VII-18)            | 52. Arano (1398-XII-29)               |
| 16. Etorra (1380-II-9)                          | 34. Pagarte (1385-VII-18)             | 53. Arretxe (1398-XII-29)             |
| 17. Aizarnatea (1380-II-9)                      | 35. Zegondia (1385-VII-18)            | 54. Beain (San Lorente) (1399-VIII-6) |
| 18. Idiakaitz (1380-II-9)                       | 36. Ezkurroa (txabolak) (1385-VII-18) | 55. Zubiaurre (1399-VIII-6)           |
|   | 37. Bedamalaspiurra (1385-VII-18)     |                                       |

## 7.11. ZAZPIGARREN KAPITULUKO OHARRAK

<sup>1</sup> HERRERO, V. J. eta BARRENA, E. Archivo Municipal de Deba. (1181-1520). I. Fuentes documentales medievales del País Vasco. 123. alea. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2006. (52-58. or.).

<sup>2</sup> ODRIOZOLA OIARBIDE, L. Historia de Zumaia. Zumaiako Udala. Zumaia, 1998. (66, 350. or.).

<sup>3</sup> MARTINEZ DIEZ, G. eta beste. Colección de Documentos Medievales de las Villas Guipuzcoanas (1370-1397). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1996. (322-324, 356, 357, 359-362, 398-410, 423-436. or.).

<sup>4</sup> ELOSEGI, J. *Juntas Generales y Particulares de Guipúzcoa. Índice de las celebradas en los siglos XIV y XV*, in Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País. Donostia, 1978. (539-541. or.)

<sup>5</sup> MARTINEZ ISASTI, L. Compendio Historial de Guipúzcoa. V. alea. I. zatia, in Antiguos Recuerdos de Guipúzcoa. Amigos del Libro Vasco argit. Bilbo, 1985. (48, 49, 50. or.).

<sup>6</sup> ORELLA, J. L. *Los orígenes de la Hermandad de Guipúzcoa (Las relaciones Guipúzcoa-Navarra en los siglos XIII-XIV)*, in Historia-Geografía, 3. Cuadernos de sección. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1984. (66, 68, 91, 97, 98. or.).

<sup>7</sup> AIERBE IRIBAR, R. M. Historia del condado de Oñate y señorío de los Guevara (s. XI-XVI). I. Estudio. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1985. (149, 151, 155, 156, 158, 159, 166. or.).

<sup>8</sup> ERENTXUN ONZALO, J. Cestona. Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1970. (72. or.).

<sup>9</sup> GOÑI GAZTANBIDE, J. Historia de los obispos de Pamplona. s. XIV-XV. II.alea. Iruñea, 1979. (322, 323, 327-333, 335-349, 351-356. or.).

<sup>10</sup> LABAIRU GOIKOETXEA, E. Historia General del Señorío de Bizcaya. II. alea. Biblioteca de La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo, 1968. (480. or.).

<sup>11</sup> ORELLA UNZUE, J. L. Instituciones de Gipuzkoa y Oficiales Reales en la Provincia (1491-1530). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (102, 103, 106. or.).

<sup>12</sup> ZUNTZUNEGI, J. El Reino de Navarra y su obispado de Pamplona durante la primera época del Cisma de Occidente. Pax argit. Donostia, 1942. (189, 360-367. or.).

<sup>13</sup> TENA GARCIA, M. S. La sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500). Donostia, 1997. (209, 249, 250, 373, 374. or.).

<sup>14</sup> AROZENA, I. *Los Parientes Mayores y las guerras de bandos en Guipúzcoa y Vizcaya*, in Historia del Pueblo Vasco, I. Erein argit. Donostia, 1978. (158, 169. or.).

- <sup>15</sup> ONAINDIA, S. *Euskal Literatura (I)*. Etor argit. Bilbo, 1971. (38, 39. or.).
- <sup>16</sup> LEKUONA, M. *Zestona*, in Cuadernos de sección, Historia-Geografía, 3. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1984. (17, 18. or.).
- <sup>17</sup> ALDABALDETREKU, R. *Debako Udalerria. Alderdi historikoak bertako dokumentuetan oinarriturik (1294-1894)*. Deba, 1996. (80, 81. or.).
- <sup>18</sup> AIERBE IRIBAR, R. M. eta ELORTZA MAIZTEGI, J. *Archivo Municipal de Zestoa. (1338-1520). Fuentes documentales medievales del País Vasco*. 136. alea. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2008. (43-63. or.).
- <sup>19</sup> LACARRA, J. M. *Historia política del Reino de Navarra desde sus orígenes hasta su incorporación a Castilla*. III. alea. Aranzadi argit. Iruñea, 1973. (175, 177, 204. or.).
- <sup>20</sup> ALBIZU, X. eta beste. *Euskal Herriko Historia I. (Historiaurretik Nafarroaren konkista arte)*. Gaiak argit. Donostia, 2004. (146, 171. or.).
- <sup>21</sup> GOMEZ PIÑEIRO, F. J. eta beste. *Historia de las Juntas Generales y Diputación Foral de Gipuzkoa. Gipuzkoako Foru Aldundia*. Donostia, 1992. (17, 18, 22, 27-30. or.).
- <sup>22</sup> TRUCHUELO GARCIA, S. *La representación de las corporaciones locales guipuzcoanas en el entramado político provincial (siglos XVI-XVII)*. Bekak, 1. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1997. (62. or.).
- <sup>23</sup> LEMA, J. A. eta beste. *El triunfo de las élites guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539)*. Iturriak, 3. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 2002. (67. or.).
- <sup>24</sup> ORELLA UNZUE, J. L. eta beste. *Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (88, 261, 262. or.).
- <sup>25</sup> ARIZAGA BOLONBURU, B. *El nacimiento de las Villas guipuzcoanas en los siglos XIII y XIV: Morfología y funciones urbanas*. Donostia, 1978. (99, 101. or.).
- <sup>26</sup> DIEZ DE SALAZAR, L. M. *Ferrerías guipuzcoanas. Aspectos socio-económicos, laborales y fiscales (siglos XIV-XVI)*. Donostia, 1997. (380, 390, 394, 401, 495-500, 829. or.).
- <sup>27</sup> PEÑA-SANTIAGO, L. P. *Las Ermitas de Guipúzcoa*. Txertoa argit. Donostia, 1975. (85, 86. or.).
- <sup>28</sup> ENRIQUEZ FERNANDEZ, J. eta beste. *Colección documental del Archivo Municipal de Lequeitio*. I. alea (1325-1474). *Fuentes documentales medievales del País Vasco*, 37. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1992. (103-105. or.).
- <sup>29</sup> XX. *Arboles genealógicos de los poseedores de Lili*. Lilitarren artxiboa. San Telmo Museoa. Donostia. 22. paper sorta. 5. agiria. (2, 3. or.).

<sup>30</sup> AGINAGALDE, F. B. Gipuzkoako dorretxeak eta leinuak. Bertan, 11. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1997. (45. or.).

<sup>31</sup> ERENTXUN, J. Apellidos blasonados. Enciclopedia guipuzcoana, 5, 6, 7. Donostia, 1965. (80. or.).

<sup>32</sup> URTEAGA ARTIGAS, M. M. Guía histórico monumental de Gipuzkoa. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1992. (78. or.).

<sup>33</sup> LABAIRU GOIKOETXEA, E. Historia General del Señorío de Bizcaya. III. alea. La Gran Enciclopedia Vasca argit. Bilbo, 1968. (11. or.).

<sup>34</sup> LEIZAOLA, J. M. La marina civil vasca en los siglos XIII, XIV y XV. Segunda parte. Siglo XIV. Donostia, 1988. (31. or.).

<sup>35</sup> TXUEKA ISASTI, F. *Getariako erregearen balea eta Donostiako probestua*, in Euskalerraren Adiskideen Elkarte. Boletín LXIV-1. 2008. Donostia. (134, 135. or.).

<sup>36</sup> XX. Zestoa. Zumaia. Valladolid. Carta ejecutoria sobre los límites y jurisdicción entre Zumaia y Zestoa, y la pertenencia de San Miguel de Aizarnazabal a la tierra de Saiaz y la de Oikia (traslado). (Valladolidko Kantze-laritzako Artxiboa. Pleitos civiles. Zarandona y Balboa. Pleitos fenecidos. 922/1. II. koadernoko 451-457. or.).